

The image shows the exterior of the Guggenheim Museum Bilbao, featuring its iconic undulating facade clad in highly reflective, metallic panels. The building's complex, organic form is highlighted by the bright sunlight, which creates a play of light and shadow across the curved surfaces. The sky is a clear, vibrant blue. The text is overlaid on the lower portion of the image, centered horizontally.

**Euskararen erabilera bultzatzeko Guggenheim Bilbao Museoaren
Euskararen Plan Estrategikoaren laburpena
2024–2027**

GUGGENHEIM BILBAO

Euskararekiko konpromisoa

Guggenheim Bilbao Museoak hasieratik adierazi du euskararekiko eta hizkuntza-eskubideen errespetuarekiko konpromiso instituzionala, eta urte hauetan zehar bermatu du erabiltzaile guztiek erakunde honekin harremanak euskaraz izateko duten eskubidea gauzatu ahal izatea. Horretarako, Museoak hainbat neurri garatu ditu konpromiso hori egituratzeko eta zabaltzeko.

2016an, euskararen kudeaketa eta erabilera sistematikoaren ondorioz, Erdi Mailako Bikain Ziurtagiria eskuratu zuen Guggenheim Bilbao Museoak. Ordutik, hizkuntza-irizpideak, arreta-protokoloak eta langileen gaitasunen garapena lantzen jarraitu du.



GUGGENHEIM BILBAO

2023an, Eusko Jaurlaritzak abian jarritako VII. Plangintzaldiaren barruan, museoak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa (2024-2027) berritu du. Plan horren helburu nagusia da euskararen erabilera zabaltzea bai herritarrekin eskaintzen den zerbitzuan, bai museoko barne lan-harremanetan, eta, horretarako, beharrezkoak diren baliabideak eta estrategiak zehaztu dira.

Plana diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibo bat egin ondoren eraiki da. Azterketak erakutsi du zerbitzu hizkuntzan euskararen erabilera bermatzen dela neurri handi batean, baina lan hizkuntza modura badagoela hobetzeko tarteak.

Horren aurrean, bi erronka estrategiko adostu dira:

1. Erakundeak bere egitea euskara ere Guggenheim Museoaren lan hizkuntza izateko helburua.
2. Euskararen ezagutzatik erabilerarako jauzia egitea, euskararen inguruan lan giro atsegina sortuz.

Erronka horiek landuta, zerbitzuaren kalitatea hobetzea, herritar zein langileen gogobetetzea handitzea eta Museoaren balioekin bat egiten duten egitasmoak garatzea nahi da.